**ELKARRIZKETATZAILEA: AMAIA NEGRO ITURREGI**

**ELKARRIZKETATUA: BEGOÑA ALZOLA**

**ELKARRIZKETA DATA: 28/06/2010**

**LEKUA: ZALDIBAR**

**ELKARRIZKETAREN IRAUPENA: 01:18:21**

## MINUTUEN ARABERA TRANSKRIPZIOA

00:00:00 Aurkezpena

00:02:39 Birraitonaren etorrera Azkoititik oraingo baserrira

00:04:47 Bere ama aurdun gelditu eta bera eskola laga egin behar eta baserrian hasi lanean

00:05:36 Sukaldaritza hasi zen ikasten 16 urterekin. Ostalaritzan aritu zen, gero baserrira

00:06:14 Eurek geratu ziren baserrian. Gurasoak eta gurasoek eurek eukitako gaixotasunak

00:07:01 Aitak baserria erosi nahi izan zuen beti. Bera hil eta gero baserria erosteko aukera suertatu zen, denetarik egin behar izan zuten hura ordaintzeko.

00:08:08 Baserritik atera behar izan zuen lanera hura ordaintzeko. Gaixo etxean sukaldari hasi zen lanean. Oposaketak euki zituen eta ikasi beharra suertatu zitzaion

00:10:04 Lanik gabe gelditu zen eta jatetxe batera joan zen lanera. Gero rezepzionista izan zen jubilatu arte. Goizetan Batzokiko jatetxean aritzen zen lanean be bai.

00:12:13 Seme-alabei buruz. Seme bat ekoizpen ekologikoarekin segitu nahi du baserrian

00:13:04 Baserriko lanekin segitzen dute. Mermelada asko egiten du. Baserria asko gustatzen zaio baina oztopo ugari du osasunaren aldetik lanetan aritzeko

00:14:29 Nebek Maestría Industrial ikasi zuten Eibarren. Neba eta ahizpen norabidea. Neba-ahizpak oso ondo konpondu dira beti eta askotan egoten dira elkarrekin.

00:17:24 Berak eskola laga behar izan zuen baserrian aritzeko. Aitak kalean lan egiten zuenez, etxean morroia zeukaten. Ama eta morroiaren artean eramaten zuten baserria astegunetan.

00:18:15 Aita argiña zen eta lan diferenteak egiten zituen

00:20:04 Gerra garaian. Aitaren anaiak gerran egon ziren, batek oso txarto bukatu zuen.

00:21:14 Amama oso kontularia zen. Asteburuetan aitarekin lan egiten zuten soloan, eta gero berak kantatzen zien seme-alabei. Denoi gustatu zaie familian kantatzea eta instrumentuak jotzea.

00:22:21 Txikitan be bai lanean aritzen ziren neba-ahizpak eta astokeri asko egin izanda gogoratzen du

00:23:54 Mutilak gehiago joaten ziren ikastera. Etxean beti eman zaio ikasteari garrantzia. Mutilek danek ikasi dute.

00:24:40 Oraindino badaukate gordeta bere aitite eta amama-ren “Contrato Pre-matrimonial” ak. Bertan datu danak azaltzen dira, zer ematen du zeinek eta zer besteak.

00:28:23 Gaztetan Zaldibarren egoten ziren eta baita Durangora joaten ziren. Durangon topatu zuen gizona.

00:30:14 Baserrian bera gelditu da. Beste inork ez zuen baserrian geratu nahi. Gurasoek hil arte egon ziren baserrian. Amak alzheimerra-rekin egon da hainbat urte. Berak zaindu du gehienbat, seme-alabak lagunduta.

00:34:19 Seme-alabek laguntzen zuten baserrian, bai amama zaintzen, bai etxean, bai baserriko lanetan. Lehen abereak mantentzeko joera handia zegoen, nahiz eta ezin zaindu.
5 ha lurra erosi zuten. Baratzarekin segitu dute, frutarbolak. Parte bat saldu zuten eta beste parte bat mantendu

00:35:24 Plazan saltzeari 1979an laga zioten. Inoiz ez dute hala ere, baserriko martxa utzi. Plazan amama, ama eta bera. Bera gaztetan,

etxean umeekin geratu behar izana. Neguan costera joaten zen eta udan solora lanera.

00:39:12 Baserriari ez dio irtenbide askorik ikusten. Semea ekoizpen ekologikoan ari da saiakerak egiten. Eurek Ehne sindikatoren fundazioan egon ziren, 80 hamarkadan.

00:40:32 Sukaldaritza eskolak eman ditu. Ikastora desberdinak egin ditu be bai, kontserbena, adibidez. Ikasketekin hasi zen jubilatu eta gero. Ikastea eta irakurtzea asko gustatu zaio beti.

00:41:48 Birraititea etorri zen 1880an. Errentan hartu zuen baserria. Bi familia egon ziren lehengo baserrian eta handik alde egin behar izan zuen. Zaldibarrera etorri zen guraso eta anai-arrebekin. Anai-arrebak inguruan ezkondu ziren gero.

00:44:13 Gero baserrian aitite geratu zen, berak lan egiten zuelako baserrian. Geroago aita geratu zen baserrian, astegunetan lan egiten zuen kanpoan eta asteburuetan baserrian.

00:45:52 Aita kalean lan egiten zuenez, morroia euki dute beti. Egondako bat, ama alargundu eta morroi etorri zen baserrira Otxandiotik.

00:48:28 Lau belaunaldiz baserria errentan hartu dute. Ugazabak baserri asko zuen Berriz-en, Algortan bizi zen. Bero loibak geratu ziren herentziarekin eta saldu zituzten baserriak.

00:51:22 Baserria erosi eta gero, apainketak egin behar izan zituzten bertan.

00:53:08 Posible den heinean, baserria beti euki dute martxan. Frutarbolak eta landare desberdinak. Amamak ukenduak egiten zituen, berak be bai.

00:58:08 Mutilentzako beti estudioak eta “inportanteak” diren gauzak izan dira. Lehen eta oraingo desberdintasunak. Baserrian lana denon artean egin dute. Lan batzuk gizonezkoek gehiago, beste batzuk emakumezkoek, plaza adibidez.

01:03:26 Aro politikoei buruz. Eskolan, frankismo garaian, erderaz egin behar izaten zuten, etxean aldiz aitak euskeraz egiteko agintzen zien. Gerra garaian hain txarto pasata, mugimendu político handirik ez zen egon bere gazte garaian.

01:05:33 Gazte izandako oroitzapena, bere aita abertzale amorratua zela.

01:06:35 Seme-alabak EAJ-n hasi ziren eta eurek be bai, apuntatu ziren. Batzokian sukaldari izan zen.

01:08:34 Jubilatu eta gero, ikasten hasi zen Durangon. Beti euki du ikasi ez imanaren pena. Gaztetan neben ikasketa liburuak irakurtzen zituen. Gero ikasi behar izan du kanpora lanera atera denean.

01:12:03 Baserria beti gustatu zaio. Orain ezin du ondo ibili solotik, eta gauza gutxiago egiten du. Mermelada pilo bat egiten du.

01:16:41 Baserritarra sentitzen da. Kanpora lanera atera zen beste irtenbiderik ez zuelako euki.

01:18:21 Grabazioaren amaiera.